



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2010eko EKAINA

**LURRAREN ETA  
INGURUMENAREN ZIENTZIAK**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD*

*JUNIO 2010*

**CIENCIAS DE LA TIERRA Y  
MEDIOAMBIENTALES**

**Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar duzu.**

**Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.**

Azterketak hiru galdera ditu, eta galdera bakoitzean adierazita dago atal bakoitzaren balioa. Ez ahaztu aukeratu behar duzula aukera OSO bat; hau da, ezinezkoa da bi aukeretako galderak nahastea.

**Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.**


**No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.**

El examen consta de tres preguntas, cada una de ellas tiene establecido el valor de cada uno de sus apartados. No lo olvides, debes de contestar una opción **COMPLETA**, no se pueden mezclar preguntas de las dos opciones.



A AUKERA

A1. GALDERA



a) (0,5 puntu) Interpreta ezazu irudi geologiko honetako profil geologikoa (ordenatu materialak zaharretik berrienera, eta zehaztu materialen ezaugarri litologiko funtsezkoenak).

b) (1,5 puntu) Adieraz itzazu profil horren erliebearen ezaugarriak, eta zehaztu zer harreman duten ezaugarri horiek inguruneko klima-ezaugarriekin eta litologiarekin.

c) (2 puntu) Substratu geologikoak dituen ezaugarriak kontuan harturik, arrazoitu ezazu irudian dagoen herriak zer arrisku geologiko izan lezakeen. Adierazi itsasertzean arrisku hori garatzeko nolako eragina izan lezakeen itsasoak eragindako higadurak. Erantzuteko, 50 hitz baino gehiago ez erabiltzea aholkatzen da.

Ezaugarriak: 1) Hareharriak, 2) Margak, 3) Irudian agertzen direnen moduko beheguneak, barrunbeak eta leizeak dituzten kareharriak (dolinak).




LURRAREN ETA INGURUMENAREN ZIENTZIAK

CIENCIAS DE LA TIERRA Y MEDIOAMBIENTALES

A2. GALDERA

Ondoan duzun irudian, egoera atmosferiko zehatz bat islatzen da. Arretaz aztertu eta galdera hauei erantzun:

- a) (0,5 puntu) Zer fenomeno meteorologiko irudikatzen da?
- b) (1,5 puntu) Irudian itsasertzeko ingurune bat islatzen denez, ohikoa da fenomeno hori Iberiar penintsulako itsasertz guztietan? Arrazoitu zure erantzuna.
- c) (1,5 puntu) A puntuan kokatuta dagoen herriarentzat, zein izango litzateke irudikatutako fenomeno meteorologikoak eragin lezakeen arrisku nagusia? B puntuan dagoen herriarentzat arriskua —bai arrisku mota, bai arriskuaren intentsitatea— berdina izango litzateke?



A3. GALDERA


(Bakoitzak 0,5 puntu) 25 hitz baino gutxiago erabiliz, defini itzazu kontzeptu hauek:

- a) Populazio baten balantzea
- b) Nekazaritza biologikoa
- c) Lurzoru-horizontea
- d) Ingurumen -inpaktuaren adierazpena
- e) Komentalismoa



B AUKERA

B1. GALDERA



a) (0,5 puntu) Interpreta ezazu irudi geologiko honetako profil geologikoa (ordenatu materialak zaharretik berrienera eta zehaztu materialen ezaugarri litologiko funtsezkoenak).

b) (1,5 puntu) Adieraz itzazu profil horren erliebearen ezaugarriak, eta zehaztu zer harreman duten ezaugarri horiek inguruneko klima-ezaugarriekin eta litologiarekin.

c) (2 puntu) Arrazoitu ezazu zer arrisku geoklimatiko izan lezaketen irudiko herriak eta errepideak, eta aipatu, orobat, arrisku hori eragin lezaketen baldintza meteorologikoak ere. Kontuan harturik irudiko ingurunean ibaiak zer kota (altitude) duen, eta konturik harturik, halaber, ibaiaren bokalea —Kantauriar itsasertzean— oso gertu dagoela, ondorioztatu nolako eragina duen marearen egoerak (itsasgora edo itsasbehera) arriskua areagotzeko edo arintzeko. Erantzuteko, 50 hitz baino gehiago ez erabiltzea aholkatzen da.

Ezaugarriak: 1) Buztin-harriak, hareharriak eta legarrak ((ibai-metakin berriak), 2) Hareharriak eta konglomeratuak geruza lodietan, 3) Margak, 4) Kareharriak.




LURRAREN ETA INGURUMENAREN ZIENTZIAK

CIENCIAS DE LA TIERRA Y MEDIOAMBIENTALES

B2. GALDERA

Laboreak ureztatzeko putzua



Irudian ekosistema zehatz bat adierazten da.

- (0,5 puntu) Zehaztu ekosistema mota.
- (1,5 puntu) A puntuan adierazten den jarduera (putzuak) ugaritzen bada, zer arrisku eragin lezake ekosisteman?
- (1,5 puntu) Nola gutxitu arriskuak? Arrazoitu zure erantzuna bi egoera desberdinetan: ingurune horretako nekazaritza-jarduera aldatuta eta aldatu gabe.

B3. GALDERA

(Bakoitzak 0,5 puntu) 25 hitz baino gutxiago erabiliz, defini itzazu kontzeptu hauek:

- Biomasa-piramidea
- Nekazaritza intentsiboa
- Desertifikazioa edo basamortutzea
- Neurri zuzentzailea
- Ekoizpen primarioa